

Donostian, 2022ko maiatzaren 27an

Gurasoak, agur:

2022-2023 ikasturterako liburuak eskuratzeko ikastolak abian jarriko duen prozeduraren berri ematera gatozkizue.

Ikasturte honetan hainbat liburu **maileguan lortzeko aukera** eskainiko dizuegu eta gainontzekoak ere ikastolaren bitartez erosi ahal izango dituzue, bertan eskaera eginez. Horretarako jarraibideak eta hainbat argibide azaltzen dizkizuegu segidan.

MAILEGU ZERBITZUA

Mailegu zerbitzuarekin **helburu hirukoitza daukagu:**

- Familiei ikasturte hasierak eskatzen dien aurrekontua arintzea.
- Ikasleak materialen kontserbazioan eta zaintzan ohitzea.
- Inguruarekiko errespetuan eta kontsumo arduratsuan heztea.

Maileguan uzten diren liburuak beheko taulan agertzen zaizkizue. Sistema honek familiei 78 € eta 124 € arteko aurrezpena ekartzen dizue, ikasmailaren arabera.

IKASMAILA	MAILEGUAN UZTEN DIREN LIBURUAK	AURREZPENA
LH 4	EKI LH 4. LENGUA CASTELLANA 4 (PACK) EKI LH 4. ENGLISH 4 (PACK) EKI LH 4. INGURUNEA 4 (PACK) EKI LH 4. DIZIPLINARTEKO KOADERNOA 4 (PACK)	78 €
LH 5	EKI. LENGUA CASTELLANA LH 5 EKI. ENGLISH LH EKI. INGURUNEA LH 5 EKI. MATEMATIKA LH 5 EKI. DIZIPLINARTEKO KOADERNOA	116 €
LH 6	EKI. LENGUA CASTELLANA LH 6 EKI. ENGLISH LH 6 EKI. INGURUNEA LH 6 EKI. MATEMATIKA LH 6 EKI. DIZIPLINARTEKO KOADERNOA EKI. EUSKARA. ARGIXORGIN ELEBERRIA	124 €

Maileguko liburu hauek gelan egongo dira eta irakasleak ikasleei banatuko dizkie behar dutenean.

Mailegu sistemak lan eta ardura batzuk dakarzkigu denoi:

- **Idazkariak eta irakasleak** mailako ikasle guztientzat liburuak erosi, identifikazio kodea jarri, banatu, jaso eta gainbegiratuko dituzte, eta horrez gain ordainketa sistema kudeatuko dute.
- **Ikasleak** maileguan hartutako liburuak zainduko dituzte, orrialdeak tolestu eta zimurtu gabe. Bertan ez dute idatziko edota marrazkirik egingo, ezta pegatinarik jarriko ere.
- **Gurasoek** maileguko liburu bakoitzeko liburuaren salneurriaren %50a ordainduko duzue LH 4n; LH 5 eta LH 6n, berriz, % 33,33a. Hain zuzen ere, orriaren azpiko aldean doakizuen liburuen zerrendan adierazten den kopurua, bertan aurrezpena kontutan

hartuta dago eta. Bestetik, komenigarria da ikasmilako **familia guztiek mailegu sisteman parte hartzea**, maileguan eskaintzen diren liburu **guztiak** eskatuz, bestela oso zaila baita ikastolarentzat sistema kudeatzea eta kontrolatzea.

Liburuen egoera baloratzea:

Ikasturte amaieran guraso elkarteak izendatutako talde batek egingo du liburuen balorazioa. Liburu bat itzuliko ez balitz edo baldintza onargarrietan ez dagoela baloratuko balitz, salmenta-prezioaren diferentzia ordaindu beharko luke familia horrek.

LIBURU ETA MATERIAL ZERRENDA:

Ikasmila honi dagokion zerrenda eta eskaerak egiteko azalpenak zirkular honen azpiko aldean aurkituko dituzue eta nahi izanez gero ikastolako web orrian ere bai.

Zerrenda horretan "BERRERABILGARRIA" zutabean "BAI" azaltzen bada, aurreko ikasturtean beste ikasleren batek erabilitakoa liburu edo materiala eskuratu dezakezuela esan nahi du. "EZ" azaltzen bada, liburu edo material berria eskuratu beharko duzue.

Zerrenda horretan "SALMENTA/MAILEGUA" zutabean "SALMENTA" jartzen duen kasuetan, liburu edo material hori ikastolan salgai egongo da, baina kanpoan eskuratzeko aukera ere izango duzue. "MAILEGUA" azaltzen bada, esan nahi du ikastolak liburu hori maileguan eskainiko duela. Norbaitek liburu erosi nahiko balu, ikastolatik kanpo eskuratu beharko luke.

"MATERIALA" jartzen duenean, berriz, material hori gelan izango dute eta ezinbestekoa da eskaera ikastolan burutzea inprimakia beteaz.

Hortaz, derrigorrez ikastolan eskuratu beharreko materiala honoko hau da:

- EUSKARA. MATERIAL DIDAKTIKOA
- ARKATZA, BOLALUMA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, KOLA, GORAIZEAK, ERREGELA, KONPASA, ESKUAIRA, KARTABOIA ETA ANGELU-GARRAIAGAILUA

LIBURUEN ETA MATERIALEN ESKAERA EGITEKO PROZEDURA:

1. Mezu honekin batera doakizuen inprimakia bete **ekainaren 10** baino lehen. Ikastolak ez ditu bideratuko data honetatik aurrerako eskariak
2. Ikastolaren bidez eskuratu nahi dituzuen liburu eta material guztietan "BAI" aukera sakatuta inprimakia bidali ondoren, zuek emandako helbide elektronikora mezu bat iritsiko zaizue. Bertan agertuko dira zuek eskatutako liburu eta material guztiak, guztira ordaindu beharreko kopuruarekin. **Irailean** ondorengo kontu korrontean egin beharko duzue diru kopuru zehatz horren sarrera:

KUTXABANK ES96 2095 5206 0710 6122 6782

Azalpenean IKASLEAREN IZENA – LIBURUAK - MAILA jarri mesedez.

3. Liburuak irailean banatuko ditu tutoreak. Jaso ahal izateko bankuko ordainagiria aurkeztu beharko duzue.

LIBURU ITZULKETAK:

Ikastolak ez ditu irailaren 15a ondoren itzulketak onartuko.

MESEDEZ, ERRESPETA ITZAZUE EPEAK

LIBURUEN ZERRENDA

LH 5

IKASTURTEA	IKASMAILA	ARGITALETXEA	LIBURUA	ISBN	BERRERABILGARRIA	SALM/MAILEG	SALNEURRIA
2022/2023	LH5	MATERIALA	EUSKARA. MATERIAL DIDAKTIKOA (ikastolan emango zaie)			MATERIALA	20,00
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. LENGUA CASTELLANA LH 5 (PACK 3)	978-84-16752-67-6		MAILEGUA	12,73
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. ENGLISH LH 5 (PACK 3)	978-84-16752-68-3		MAILEGUA	12,73
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. INGURUNEA LH 5 (PACK 3)	978-84-16752-70-6		MAILEGUA	12,73
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. MATEMATIKA LH 5 (PACK 3)	978-84-16752-69-0		MAILEGUA	12,73
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. DIZIPLINARTEKO KOADERNOA (PACK 3)	978-84-16752-65-2		MAILEGUA	6,96
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. LENGUA CASTELLANA LH 5 - JARDUERA FITXAK	978-84-16752-62-1	EZ	SALMENTA	7,57
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. INGURUNEA LH 5 - JARDUERA FITXAK	978-84-16752-64-5	EZ	SALMENTA	7,57
2022/2023	LH5	IKASELKAR	EKI. MATEMATIKA LH 5 - JARDUERA FITXAK	978-84-16752-63-8	EZ	SALMENTA	7,57
2022/2023	LH5	MATERIALA	ARKATZA, BOLALUMA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, KOLA, GORAIZEAK, ERREGELA, KONPASA, ESQUAIRA, KARTABOIA ETA ANGELU-GARRAIAGAILUA (ikastolan emango zaie)			MATERIALA	5,50
2022/2023	LH5	MATERIALA	FUNDEN KARPETA (40 FUNDA) . HORIA		BAI	SALMENTA	5,35
2022/2023	LH5	MATERIALA	5 PLASTIKOZKO KARPETATXO, BARRUAN LAU ANILLEKIN, FOLIO TAMAINAKOAK (berde iluna, berde argia, arrosa, urdin argia, gorria)		BAI	SALMENTA	10,50
2022/2023	LH5	MATERIALA	TXIRULA		BAI	SALMENTA	7,10
2022/2023	LH5	MATERIALA	KALKULAGAILUA: CASIO HS-8 ER BOLSILLO (tapaduna)		BAI	SALMENTA	8,15
2022/2023	LH5	MATERIALA	KOADERNO HANDIA MARRADUNA (Espiral bakarra, azal lodikoa)		EZ	SALMENTA	2,40

LIBURU ESKAERA: LH 5

Ohar honen bertsio elebiduna [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión bilingüe de este documento está disponible [aquí](#).